

# Anima zaitez, egin ezazu bat

# Eskulana





Parte hartu, kontsumitu gutxiago, berrerabili gehiago

## Liztor asiaticoa harrapatzeko tranpa

Liztor asiaticoa (vespa velutina) indarra hartzen joan den espezie inbaditzailea da, honek erleak erasotzen ditu. Gaurkoan hauek harrapatzeko tranpa bat zelan egin erakutsiko dizuegu.



1. Moztu plastikozko botila eta alderantzikatu ebakitako zatia tapoia kenduz edo 9 mm-ko zuloa eginez tapoian. Horrela lortzen dugu inbutu-efektua.
2. Garagardo beltza edo zuku, ozpin-koilarakadak eta alkohol-koilarakadak nahastu eta botilan sartzen dugu, horrek asiako liztorra botilaren barrura erakarriko du.
3. Baliteke beste intsektu txikiago batzuk harrapatzea. Horregatik, irteerako bi zulo egingo ditugu alboetan, 5 mm-ko diametrokoak, eta makila finak sartuko ditugu, haietatik atera ahal izateko.
4. Azkenik, botilaren goiko aldean bi zulo egin eta lokarria pasa, zuhaitzaren batetik zintzilikatu ahal izateko.

Liztor asiaticoaren kabia ikusiz gero Udaletxean abisatu.  Informazio gehiago eskuratzeko [egin clic](#). 

**Beharko duzuna;**  
Plastikozko botila 1  
Ozpinaren 3 koiarakadatxo  
Zuku gozoren baten 100mL

Alkohol etilikoaren 2 koiarakadatxo  
Makiltxo batzuk  
Kordoia edo sokaren bat

\*Sahiatu etxean dituzun materialak berrerabiltzen.

